

## UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

### ILUNBE GUNEAREN ETORKIZUNeko ERABILEREI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Borja Semper Pascual Talde Popularraren bozeramaile naizen honek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua babesean, honako KONTROL MOZIO hau aurkeztu dut, Ilunbe gunearen etorkizuneko erabilerei buruz Ogasun Batzordean egindako interpelazioaren ondorioz.

#### JUSTIFIKAZIOA

Ilunbe gunearen salmenta esleitu zien Udal Gobernuak 2016ko abenduaren 7an Larrain SL eta Loiola Gestión Inmobiliaria SL enpresei. 2017-02-28an, salerosketa eskritura formalizatzeko urtebeteko luzapena ematea onartu zuen Tokiko Gobernu Batzarrak. Bi urte baino gehiago igaro dira exekuzio proiektua eten eta kontratistek Ilunbe gunean hasieran xedatutako erabilerak garatzeko, eta Ogasuneko zinegotzi ordezkaria bera Ogasun Batzordean bertan adierazitako erabilerak garatzeko, eta honako hau planteatzen dugu:

#### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio lehenbailehen alda ditzala Ilunbe gunerako xedaturiko erabilerak, eta hirugarren sektoreko beste helburu batzuk baimentzeko.
2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio hirugarren sektoreko erabilera horien barruan gazteentzako bizitegi espazio berriak kontuan izateko, teknologiek lotutako bulegoekin konbinatuta, Miramongo Parkearen hedapen gisa.

Donostian, 2019ko uztailaren 16an

Borja Sémpér Pascual,  
Talde Popularraren bozeramailea.